



GEORGIAREKIKO HARREMANEZ

1977 - X - 27

X. Kintana

Euskaltzain jaun andreok:

Lehengo baten, hemen Georgiako euskal estudioen berri eman nizuen. Harez gero zenbait gertakari berri izan dira, hemen agertu nahi dizkizuedanak.

Kaukasiako Herrien hizkuntzek, dakikezuenez, ez dute gaurkoz etorki ez ahaidetasun hari ezagunik, eta aspaldidani-ko susmoa ba dago, georgiarrei dagokienez behinik behin, euskararekin zer ikusirik ez ote duten. Bertako herriak, gainera, euskaldunok beraien ahaideak garelako ustea oso zabaldua du, eta horretan dagokeena egia ala fantasia hutsa ote den jakiteko, Arnold Txikobava hizkuntzalariak, *Bedi Kartlisa* aldizkarian, duela urte pare bat zioenez, beharrezkoa zen, alde bietatik, euskal eta kaukasiar aldetik halegia, arazoari aurre egin eta aztertzeak hastea. Ez da hau, bistan dago, bihar etzi konpon daitekeen problema; luze izateko itxura osoa du, baina hasi gaberik ez dela ezer inoiz amaitzen kontutan harturik, georgiarrek arlo horretan lehen pausoa egitea erabaki dute.

Ihazdanik ba zen georgiarren artean, Unibertsitateko euskal estudioez gainera, beste proiektu bat, Euskal eta Kaukasiar Herri eta kulturen arteko harremanak sendotzeko.

Dakizuenez, Georgia Sovietar Batasuneko Errepublika federatu bat da eta bere gobernu propioa dauka, kultur arazoetan esku osoa duena. Gobernu horren babesean Georgiako Zientzien Akademia dago, kulturaren arlo guztiez arduratzen dena. Erakunde horrek, Xota Dzidziguri akademikide eta Ilia Tabagua historialariaren eraginez, aurten Euskal Herriare-

kin, Euskaltzaindiaren bidez, harremanetan jartzea erabaki du ofizialki.

Horretarako, aurtengo Uztailaren 12an, Xota Dzidziguri eta Ilia Tabagua, Viktor Bondarenko jaunarekin, bisita egitera etorri zitzaizkigun. Bilbon neronekin egon ondoren, geroago, Jose Antonio Arana Martija musikologoarekin —Juan San Martín orduan etortzerik ez zuen izan zoritxarrez— Arantzazura joan ginen, beraiek nahi zutenez, Villasanterekin egoteko.

Bertan, Xota Dzidzigurik, kortesiazko zenbait liburu eta erregalu egin ondoren, proposamendu konkretu batzu egin zizkigun. Aurten Georgiako bi hizkuntzalarik, bata Greta Txantladze, euskal irakaslea, euskal gaiei buruz beren thesisek bukatuko dituzte. Estudio hauen iraupenerako, Zientzien Akademiak, Euskaltzaindiarekiko lankidetasunaz, hizkuntzalari biok Euskal Herrira, hirur hilabeterako edo, bidali nahi lituzke, hemen, *in situ*, beren lan eta formazioa aitzinatzeko. Era berean, eta lehengoaren orde, guri hara beste bi pertsona bidaltzeko eskaintza egin ziguten, Georgian hirur hilabete-tan ikasketak egiteko.

Azterlari trukaketa hau ondoko kondizioetan egin nahi lukete. Bidaiaren gastuak bidaltzen dituen Herriaren kontutik, eta egotea, aldiz, hartzen dituenaren kontura lirateke, horrela dibisa galtzerik gerta ez dadin.

Beraiek, hortaz, hona beren hizkuntzalariak beren kontura igorriko lizkigukete, guk, hartzean, haien hemengo egotegastu guztiak geure gain hartuz. Era berean, guk hemendik hara bidaliko genituzkeenen bidaiak ordaindu beharko genuke, Georgian eginen lituzketen gastuak haiek onhartuz.

Proposamendua, oinharritz, zuhurra eta egokia iruditu zitzaigula esan genien, baina Euskaltzaindiaren oraingo ekonomia egoera ahula kontutan harturik, zera gehitu genien, ez genezakeela hantxe bertan bat-bateko erantzunik eman ez konpromezurik har, baina geure ahaleginak eginen genituela horretarako, diru arazoa konpondu bezain agudo gure baiezipena bidaliz.

Honez gainera, Dzidziguri jaunak beste proiektu baten asmoa azaldu zigun, hots, datorren urtean edo, Tbilisiko Unibertsitatean Euskal-Kaukasiar kulturen symposium bat egitekoa, bertan hizkuntza, arkheologia, musika, ethnologia, an-